



2.4 JARDUERA: KOADRO KONBINATUAK ETA FUNTZIOEN ERABILERA

Ariketa honetan datu zerrendekin lan egin nahi da, helburua bertako informazioa laburtzea izanik koadro konbinatuak erabili eta bilaketa funtzio batzuk aplikatuz.

Jarduerak:

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerrri ezberdinetarako jaiotza, heriotza, famili gune, okupatu, langabezia tasa eta etxebizitzak buruzko informazioa daukagu. Datuak bosturtekoak dira (1981, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006) eta Eustat-ek (Euskal Estatistika Erakundeak <http://www.eustat.es>) eskaintzen duen datu bankutik eskuratuak izan dira. Aldagai bakoitza liburu berdineko (2.4.ardueraDauak) orri ezberdinetan gordea izan da.
2. Orri formatua eman, guztiek antzerako egitura izan dezaten.
3. Orri berri bat erantsi, Jarduera izena izango duena eta ondorengo itxura edukiko duena:

DATUAK UDALERRI BAKOITZEKO	
Jaiotzak	14
Heriotzak	4
Saldo begetatiboa	10
Famili guneak	262
Biztanlego okupatua	328
Langabezia tasa	13,9
Etxebizitzak	433

Hau da, bi koadro konbinatu agertu behar dira: batek euskal udalerrri ezberdinetara sarbidea eman behar du eta besteak urte ezberdinetara.

Bi koadroen azpian, funtzio egokiak erabiliz, taula bat agertu behar da non koadro konbinatuan aukeratua izan den udalerrri eta urtean aldagai bakoitzak hartzen duen balioa erakutsi behar den. Hau da, udalerrri edo eta urte bat hautatzen den bakoitzean, aldagaien informazioa aldatu egin behar da.

4. Taula honetan jasoriko informazioa hobetu, aldagai baten inguruko informaziorik ez dagoenean (erlazonaturiko orrietan gelaxka hutsak edo eta puntuak dauzkaten gelaxkak daude) EE (ez eskuragarri) agertu dadin.



2. Modulua: Datuen Tratamendua Kalkulu Orrietan

Udalerria ▼

Urtea ▼

1

DATUAK UDALERRI BAKOITZEKO	
Jaiotzak	51
Heriotzak	43
Saldo begetatiboa	8
Famili guneak	EE
Biztanlego okupatua	EE
Langabezia tasa	EE
Etxebizitzak	EE